



ETXEKO URA: HOTZA ETA BEROA



Berogailu sasoia ez denean, jarri galdararen hautagailua “sólo ACS” (“etxeko ur beroa soilik”) dion posizioan, ura ez da hain bero egongo..	0
Komunean ura aurrezteko metodo merke bat tangan urez betetako botila bat edo bi jartzea da; husten duzun bakoitzean 1,5 eta 3 litro bitartean aurreztuko dituzu.	0
Konpondu txorrotetako ihes edo tanta-jario guztiak: hilabete batean 100 litro ur xahutzea saihestuko duzu.	€
Tanga zaharra baduzu, flotagailuaren hagaxkaren angelua graduatu dezakezu, betetzeko erabiltzen den ur kopurua erregulatzeko.	0


Tanga




Saiatu dutxa 5 minututik gora ez luzatzen, normalean, nahikoa da higiene pertsonala mantentzeko.	0
Txorrota aldatzeko orduan, hautatu erdian ur hotza irekitzeko aukera dutenak, horrela, galdara ez da piztuko ur berorik behar ez duzunean.	€€

Txorrota berrienek emaria mugatzeko (5 litro minutuko) gailuak dituzte; txorrota zaharrenen kasuan, aireztagailuak edo zurrusta haustekoak jar ditzakezu; ur- eta energia-gastua murriztuko duzu (ur beroa).	€
Instalatu txorrota termostatikoak dutxan, % 4 eta % 6 bitarteko energia-aurrezkoa lortuko duzu.	€€
Instalatu dutxa- buru eraginkorrak , erosotasunik galdu gabe murriztuko duzu ur gastua.	€
Ez eragin txorrotei ur beroaren posizioan ur beroa behar ez baduzu.	0

Txorrota termostatikoa



Dutxa-buru eraginkorra



Ba al zenekien...

dutxatzeko garaian txorrotatik ateratzen den urarekin ontzi bat bete dezakezula oraindik nahi duzun temperatura ez duenean? Ur hori geroago erabili ahal izango duzu garbiketa-lanen batean.

Kondentsazio-galdara baduzu, programatu temperatura baxuan lan egiteko (55-60°C).	0
Zure galdara zaharra berritzeko asmoa baduzu, aukeratu kondentsazioko bat edo temperatura baxuko bat, errendimendu handia baitute, % 110era bitartekoa; % 30eko energia-aurrezkoa lor dezakezu.	€€€

A! Ez ahaztu enpresa mantentzaile baimenduarekin harremanetan jartzea zure etxeko berogailu eta ur beroaren instalazioak aztertzeko, horrela, erosotasun maila, aurrezkoa eta segurtasuna bermatuko dituzu sistema horiek erabiltzean.